

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMI

Lantegiak

14 zbk.

2006ko otsailaren 5ean



Salvadorako emakumeak papera pasatzen, 'La sala' aretoan.

Industrializazioarako lehen pausoa Subijana lantokiarekin eman zen Villabonan. Gerora etorri zen La Salvadora papertegi ezaguna eta, geroago oraindik, Sacem ospetsua. Amasan zuhaitzak hazteko muttegia zegoen eta gainerakoan; Portu papertegia, Aristegi inprenta eta Alas fabrika Zizur-

kilen. Adunan, kartoitegia. Lantoki horietan nahikoa izerdi botata ateratzen zuten bizitzeko adina sosa gure arbasoek. Lana egiteko modua, berriz, erabat ezberdina zen eta baldintzak ere bestelakoak. Kontu bitxi ugari dakargu gaurkokoan ere, jarraitu nahi al duzu irakurtzen? Zatoz gurekin.

SUBIJANA, EHUNGINTZAREN HABIA

Zenbat esku, zenbat lan... Bat baino gehiagok, oraindik ere, ondo gogoan du lantoki ospetsuan oihalgintzan egindako lana. Eta sortu? Nork eta noiz sortu ote zuen? Bada, Lumanetarren garaian Alejandro Subijana zen lantegiko nagusia, "aurretik, ordea, lantegiaren ardura Telesforo aitak zuela esaten zen". Hizlariak ez dute zehaztu nork jarri zuen abian negozioa, "aspaldiko kontuak dira horiek. Guk subijanatarren izena entzun dugu beti lantegiarekin lotuta". Baina idatziak arakatuta, badirudi Teofilo eta Rodolfo Silva anaiek eta Eliseo Frois Baionako merkatariek sortu zutela oihalgintza etxea. 1858 eta 1860 urteen artean eraiki zen. Lehen urteetan, Silva Hermanos y Frois moduan ezagututakoa. Hasiera-hasieran kotoizko chunak egiten zituzten, "maindireak asko". Geroago oihalen estanpaziora lerratu ziren. Andoainen nahiz Villabonan, nagusi berberak bi herrietan zituen lantegiak, "egunero joaten zen zaldi-karroa hartuta Alejandro nagusia Andoainera. Gerora ekarri zuen kotxea. Lehen-



Maria Luisa Zalakain

"Nagusia atzean jartzen zitzaidanean, urduritu eta azkar-azkar segi eta segi aritzen nintzen"

lehenik La Algodonera izena zuen Andoaingo lantegiak, Subijana izena geroago jarri zioten. Villabonakoa baino printzipalagoa zen Andoaingoa. Han, Villabonan baino jende gehiagok egiten zuen lan; hala ere, jende puxka bat biltzen zen Villabonan ere. Herrenak, elbarriak... denak hartzen zituztela esaten zuten". Maria Luisa Zalakainek Andoaingo La Algodonera egin zuen lan Villabonako Subijanan hasi baino lehen. "Nagusia egunero etortzen zen lanean nola ari ginen ikustera. Izugarritzko errespetua zitzaion. Izugarritzkoa!". Anjel Egiñok,

"errespetua baino beldurra" zitzaiola zehaztu du. Emakumeen eta gizonen lanak ezberdinak ziren, "gizonak indar handiagoko lanak egiten zituen. Makinak prestatu eta martxan jarri, esaterako. Emakumea, berriz, estanpazioko bestelako lanetan aritzen zen". Maria Luisa Zalakainek, esaterako, haria biltzen zuen, "izugarritzko ganora nuen haria biltzen eta Inazio, nagusietako bat, erlojuarekin atzetik begira izaten nuen; zenbat denboran egiten ote nuen. Hura joan zen batean, Benita Ormazabal enkargatuak 'ez zara konturatzen ze kalte egiten duzun, ezta?' esan zidan. Denek ezin baitzuten hain azkar lanik egin, baina nagusia atzean jartzen zitzaidanean, urduritu eta azkar-azkar segi eta segi aritzen nintzen". Garai hartan labeko berotasunaren bidez jartzen zituzten martxan makinak. "Baporea izateko labea beti piztuta mantendu behar zen. Makinak labearen indarrarengatik jartzen ziren martxan". Beste askoren artean, Manuel Gabirondok izan zuen labearen ardura urte askoan. Gerra etorri zenean, Subijanak egin behar berezia izan zuen: "Ejertzitoko soldaduen arropak ehuntzeko, kaki koloreko tela egiten zen". Aipamen hori egin eta gero, zalantza sortu zaie: "Akaso tela Andoainen egingo zuten eta Villabonan kolorea emango zitzaion". Era batera edo bestera, kotoigintza eta oihalgintza landu ziren lehenengo eta estanpaziora gero, "Bartzelonatik etorri ziren estanpaziora erakustera". Urteak aurrera, katalanak lantegiko bazkide egin zirela aipatu dute hizlariak, "kanpoko jende asko etorri zen lanera. Inguan nahiz kanpoan harrera beroa zuen negozioak segidan egin zuen porrot orduan". Subijanako jai eguna maiatzaren 6an ospatzen zuten langileek, "San Joan de Portalamina egunean. Egun horretan, bazkaria ematen zitzaion langile guztiei Zentroan. Geroago Jesusen Bihotza egunean jarri zuten jai eguna. Meza berezia izaten zen eta hamaiketako gero".



1948 urtean, Subijanako lorategian hainbat langile: Zutik, Euxebi eta Eloisa andoaindarrak, Maria Luisa Zalakain, Anjelita Kintana, Maria Teresa Osinaga eta Klarita Arin. Eserita: Miren Odriozola, Maria 'Valentziana' eta Maria Jesus Beristain.

SUBIJANA ETXEA, HERRITAR ASKOREN BILGUNEA

Izen handiko familia zen subijanatarrena, “ezkontzetan alfombra eta guzti jartzzen zuten Subijana etxetik elizaraino. Villabonako jaun eta jabe ziren, nagusiak. Txapela kendu behar izaten zen kalean haiei kasu egiteko”. Etxeko lanetarako langileak zituzten subijanatarrek. “Sukaldaria, dontzeila eta umezainak. Alejandro Subijanaren garaian, Martina Irazusta zen sukaldarietako bat, Dolores Iparragirre dontzeila eta Iruñeatik etorritako bi neska umezainak”. Dontzeila lanetan aritu zen Doloresek alai azaldu digu hainbat bizipen, “gogotik egiten genuen lan. Bai horixe, lan handia... Hala ere, ederki konpontzen ginen eta juerga politak egiten genituen. Gure eginbeharra bukatu eta gero, porteriara jaisten ginen askotan. Arratsaldetan Inaxio Larre egoten zen, beste txandaren batean Inaxio Zubeldia. Oso jatorrak ziren, barre ugari egiten genuen elkarrekin”. Doloresek hamaika urte igaro zituen subijanatarrentzat lanean. “Garai

hartan ez genuen diru askorik irabazten, hasieran bederatzi duro hilabeteen. Interna geundenez, bizi ere bertan bizi ginen”. Kontu gehiago ere azaldu digu, “Bai Martina eta baita neroni ere, lantokian egin ginen adiskide gero gure senarra izango zenarekin”. Lanerako ez ezik, kontu gehiagorako tartea ere aurkitzen zuten, beraz. Orduan ere, Subijana etxea dotorea zen kanpotik nahiz barrutik. Beheko solairuan porteria, bulegoak eta sukaldea zeuden. Lehen solairuan, bi etxebizitza, “Antton eta Luis Subijana anaiak bizi ziren ezkereskubitarra. Goian, bigarren pisuan, berriz, Alejandro aita bizi zen. Subijanako ganbaran, etxeko nagusientzako kapilla zegoen. Mezak ematen ziren. Ni joan izan nintzen monagillo bezala, apaizari laguntzera. Orain kendu digute, teilatua libratu dutenean. Nik kaletik ikusten nuen nola oraindik han zegoen” aipatu du Pakok, kapilla aurrez aurre balu bezala begiak itxiz. Kapillaren ondoan plantxa egiteko gela bat



Martina Irazusta sukaldaria eta Dolores Iparragirre dontzeila. Erdian Iruñeako umezainak nagusien haurrekin.

eta interna moduan lan egiten zuten emakumezkoentzako gela zeuden, “bost ohe zituen gelak, handia zen”. Eta atariatz zer? “Lorategi handiak zituen etxeak eta erdi-erdian Jesusen Bihotzaren irudia. Baratzezainak zaintzen zituen baratze ederrak. Fabrika, etxearen atzean zegoen, ibai alde-ara. Erretegia edo tailer mekanikoa erdibana zuten Salvadorak eta Subijanak. Bai, bai: bakarra zuten biek, bi lantokietatik zuten sarrera”.

SALVADORA, PAPERGINTZAREN ERREINUA



Pako Etxenike

“Normalean erreleboak txandakatu egiten ziren, baina nik zorrea izan nuen. Beti goizez egiten bainuen lan”

1870 urtean zabaldu zuten La Salvadora paper fabrika Villabonako Kale Nagusian. Kolore, tamaina eta era askotako papera egiten zuten bertan, “telazko papera ere bai. Eskatzen zutena; fina edo lodiagoa, nahi zena. Paper ona egiten zen. Fama handia zuen”. Herrialde askotan banatzen zen Salvadorako papera, “Euskal Herrian eta Espainian batez ere”. Papera egiteko pasta baliatzen zuten, “Europako iparraldetik ekartzen zen, Finlandiatik edo Noruegatik. Bigarren Gerrate Mundiala eta gero, ordea, ezin zen produktu hura ekarri”. Pasta fabriketan bertan egiteko makinaria prestatu behar izan zuten orduan, “Gerra eta gero, geronek egiten genuen pasta; egu-

rra eta albardin belarrak kaldera handi batzuetan egosita. Albardina Afrikako hegoaldeko iristen zen”. Kaldera aipatzean guztiak gogoratu dira ezbehar larri hartaz, “behin belarra egosten ari ginela, leher-tu egin zen kaldera. Asteasuko Zelestino Etxabe hil egin zen eta Ttentteneko morroia, ‘Naparra’ moduan ezaguna, hankarik gabe geratu zen. Geroago auto istripuan hil zen”. Gizonak hiru errelebotan egiten zuten lan, “06:00etatik 14:00etara, 14:00etatik 22:00etara eta 22:00etatik 06:00etara. “Normalean erreleboak txandakatu egiten ziren, baina nik zorrea izan nuen. Beti goizez egiten bainuen lan” azaldu du Pakok irribarretsu. Emakumeak, berriz, goizez eta arratsaldez aritzen ziren, goizeko 08:00etatik eguerdiko 12:00etara eta arratsaldeko 14:00etatik 18:00etara. Salvadora ez zen inoiz gelditzen, ez gauzez ez egunez. Ezta jai egunetan ere, “makina aberiatzen zenean bakarrik geratzen zen hango lana”. Pakok lan ezberdinak egin zituen Salvadoran, “kamioi asko deskargatzen lagundu nuen, makinetan ere aritu nintzen lanean eta azkenean, sukaldean likidua prestatzea zen nire

eginbeharra”. Robertok urte gutxi batzuetan egin zuen lan Salvadoran eta denboraldi horretan, makinako lanean aritu zen, “errelebo bakoitzean, langile bat eta bi laguntzaile aritzen ziren makina bakoitzean. Paper bilkari bakoitzak 150etik 200 kilora pisatzen zuen”. Emakumeek eta gizonen lan zeharo ezberdina zuten papertegian ere, “emakume guztiak papera pasatzen aritzen ziren, ‘La sala’ deitzen zioten gelan, sorta handiak egiteko. Gero, sorta haiek fardoetan jartzen ziren banaketarako. Fardoak itzainek eramaten zituzten tren geltokira, errastitarrek. Indar gehiago eskatzen zuten lanak gizonen egiten zituzten: kamioiak deskargatu, makinak martxan jarri... Itzainen lana ez zen paper fardoak estaziora eramatea bakarrik, laborako ikatza ere gurdian ekartzen zuten fabrikara; “aurretik, ordea, estazioara joan behar bagoia deskargatzera”. Deskargan zebiltzala ere gertatu zen istripuren bat edo beste, “Alfredo Baztarrika belar karroaren gainean zegoen fardoak botatzen. Ezinean zebilela ikusita, Villabonako Ezkio-ga behetik laguntzen hasi zitzaion eta azpian harrapatu zuen fardoak. Hantxe hil zen”.

HAMAR TONA PAPER EGUNEAN

Paper fabrikak etxebizitza ere bazuen lehen solairuan, "behean porteria zegoen alde batean eta langileei soldatak emateko gela beste aldean. Porteroak lantokia zaintzen zuten eta enkarguak egitea ere bere lana zen. Fabrika atzealdean zegoen, ibai aldera. Eta eraikinaren lehen solairuan, bulegoak eta nagusien etxebizitzak zeuden". Lan asko izaten zuten arren, tartean-tartean, atsedendialdiak egiten zituzten. Gosaltzeko eta bazkaltzeko ordu erdiko etenaldiak izaten ziren. Hasiera batean bazkaldu ere bertan egiten baitzen, etxetik bazkaria eramanda. "Gero zero-errek erremediatu behar zenuen deskan-



Salvadorako langileak papera egiten antzina-antzinan.

tsuetan galtzen zenuen denbora. Lehenbailehen jaten genuen, jakina". Salvadorako langileek maiatzaren 3an izaten zuten jai eguna, Santa Krutz egunean. Jantzita, gizonak behintzat, lanerako guztiak berdin jantzen ziren garai batetik aurrera, "hasieran ez baina geroago, bagenuen uniformeak; maoizko galtza eta alkandora urdinak. Sei hilabeterik sei hilabetera edo ematen ziguten jantzi berria". Eta emaitzari begira, orduan egun batean egiten zen paper kantitatea, egun hogeita lau ordutan egiten dena baino askoz ere baxuagoa zen. Eskulana nagusitzen baitzen. Ez zuten bestelako baliabide handirik. "Ni hasi nintzenez ez zen paper askorik egiten, 10000ren bat kilo egunean? Orain 100000 kilotik pasa egingo dira, orduan baino jende gutxiagorekin gainera. Baina aurrerapenei esker. Orduan kamioia pastarekin iristen zenean hamar bat lagun joaten ginen hura hustutuzera, eskuz dena. Orain batek bakarrik egiten du lan hori" gogoeta egin dute etxeniketarrak eta Robertok. Lanera sartzeko tutua jotzen zuten Salvadoran eta Portun. "Erdietan lehenengo, laurden gutxiagoetan gero eta bost



Jabier Berasaluze

"Oria ibaiko arrain guztiak desagertu ziren. Badirudi garai hartan ez zegoela ekologistarik"

gutxitan azkenik. Jendea ondo esnatzeko. Azken tutua eta gero atea ixten zuten. Garaiz iritsi behar". Behin baino gehiagotan entzuten zen tutua egunean zehar, "errelebo bakoitzaren hasieran jotzen zuten eta herri gutxian entzuten zen. Portuneko tutua urrutira iristen zen, Salvadorakoa baino furrteagoa zen. Jendea kexatu egin zen eta kendu egin zuten Salvadorakoa". Emakumeek goiz eta arratsalde lan egiten zuten, txanda bakoitza hasi eta bukatzerako jotzen zuten txirrinak. "Papera egiteko pastaren hondakinak ibaira botatzen ziren eta uraren gainean, hogeita bost bat zentimetrora, igeri geratzen ziren, ura estaliz. Haize boladetan, herri gutxian zehar zabaltzen zen aparra. Itxuraz elurra zirudien baina, ustel usaina zuen, Oria ibaiko arrain guztiak desagertu ziren. Badirudi garai hartan ez zegoela ekologistarik" aitortu du Jabierrek.

SACEM-GO MAKINAK ATZERRIRAINO

Gerra bukatu ondoren sortu zen Sacem lanregia Legarreta auzoan, 1939 urtean. "Adu-nako kartoitegian hasi ginen lanean, Sacem bukatu gabe zegoelako. Bi urtetan aritu ginen bertan fabrika berrira joan aurretik, baina ez kartoia egiten. Gu apendiz bezala hasi ginen aurrena" azaldu du Anjelek. Ando-aingo laborde-tarrak eta Zumarragako Sarralde ziren nagusiak. Martinez eta Iturriotz, berriz, enkargatuak. Burniarekin makinak egitea izan zen Sacem-go eginbeharra urte luzetan. "Sacem fabrika inportantea zen garai hartarako. Lantegiak zuen eskolako ikasle ginenean, azterketak eta guzti egiten zizkiguten. Gu apendiz geundela, lana zaharragoek egiten zuten. Hala ere, ofizioa ikas-teaz gain, kobratu ere egiten genuen; 2.25 pezeta egunean". Apendiz moduan sartzen zirenak, aurrez aukeratuak izaten ziren, "eskolara joaten ziren ikasle gazteen bila. Anjel Egiño, Santiago Lopez, Juan San Sebastian, Inaxio Gonzalez, Patrizio Bernaras eta sei-erok izan ginen lehen promozio-koak" aipatu du Jabierrek. "Bailarako ikasleei eskaintzen zitzairen aukera hori eta ikasle asko

sartu nahi izaten zuen". Guztiak ez zuten, ordea, zorterik izaten. "Seitik hamar ikasle-lerata bitarte hartzen zituzten urtean, fabrika handitzen ari zen heinean, baita hoge-ier ere". Lau urte igarotzen zituzten apendiz moduan ofizioa ikasten, "matematika, geometria, marrazkia, tailerra, gimnasia, atle-



Sacem lantegiaren ikuspegia. Legarretako baserriak eta Sorrodore errota. Atzean Ernio mendia.



Anjel Egiño

"Ofizioa ikasteaz gain, kobratu ere egiten genuen; 2.25 pezeta egunean"

tismoa, erlijioa... ikasgai ezberdinak genituen eta torneroak, montadoreak, deliniantek, administrariak... ateratzen ziren eskolatik". Sacem-go langileek langile onen fama zuten, "Sacem-en ikasitakoak nor-nahiko egokiak zirela esaten zen. Estimazioa zuten", halaxe azaldu dute hizlariek. Jabierrek esker oneko hitzak izan ditu Sacem-go nagusientzat, "hamalau urteko mutiko askori ofizioa ikasteko aukera eskaini zigun Sacem-ek. Enpresako zuzendari-er eskerrak eman beharrean gara". Langileek egiten zituzten makinak, Erregetxoko Beloki itzainak garraiatzen zituen geltokira eta trenean iristen ziren helmugara. Eusebio Beldarrainek mandoari lotutako gurdian pakete txikiagoak eramane eta ekartzen zituen hara eta hona. Sacem-en lan asko egiten zen atzerri-rako; Alemaniara-ko, Ameriketara-ko, Indiarako... "Eskara zegoenean,

montatzera atzerrira atera behar. Besteak beste, Joxe Arin edo Migel Lasa ibili ziren montajearen kanpoan". Eta atzerrira ez ziren montatzera bakarrik ateratzen, "erakusketak ikustera ere joaten ziren. Roman Almor-tza eta Pako Mendiluze Mejikora ere joan ziren". Enpresak bazuen interpretea ere, "Marife Jauregi villabonatarak lau hizkuntza hitz egiten zituen. Hasieran Donostiako hotel batean harreragile moduan aritzen zen

arren, Sacem-go interprete ibili zen gero; mundu guztian zehar. Sacem-go nagusiei edo montadoreei leku guztietara laguntzen zien". 140 bat langile izango ziren denera. "Gizonezkoek bakarrik egiten zuten makinekin lan. Baina bulegoetan emakumeak ere aritzen ziren". Bitxikeria moduan bisita baten berri eman dute: "Errege-erreginak printze zirela, Sacem ikustera etorri ziren. Euskal Herriko fabrika garrantzitsuenak bisi-

tatu zituzten: Patrizio Etxeberria, Laborde, Sacem... Pentsa ze garrantzia zuen Sacem-ek". Galdera egin du Pakok, "Entendituko al zuten zer edo zer?". -"Batere ez", erantzun dio Anjelek, -"buelta eman eta kito". Telleria zen Sacem eta Alas lantegietako gerentea, "oso gizon ona zen, jatorra, bihozbera. Hark nahiago zituen langile euskaldunak kastellanoak baino", zehaztu du Maritxuk.

MAKINENTZAKO MOTORRAK ALAS-EN

Sacem-go nagusi berberena zen Zizurkilgo Elbarrena auzoan zegoen Alas lantegia. "Sacem-en makinak egiten baziren, Alas-en makina horientzako motorrak egiten ziren". Eskualdeko jende ugari egiten zuen lan; emakume nahiz gizon. "Emakumeak bobinatzen aritzen ginen, eskulanean. Torlojuak karraskatu, barillak moztu...



Maritxu Gonzalez

"Taladroarekin zuloak egiten ere aritzen ziren emakumeak"

lan asko egiten genuen emakumeok. Taladroarekin zuloak egiten ere aritzen ziren emakumeak. Gizonak makinetan egiten zuten lan, baita montajearen ere" azaldu du 27 urtetik 40ra bitarte Alas lanean aritu zen Maritxu Gonzalezek. "Neguan hotzak egoten ginen, ez baikenuen berogailurik. Labearen ondora inguratzen ginen orduan eta enkargatua akordatzen zenean, bueltaka-bueltaka hasten zen, bitxoa baitzen". Lanerako jende mordo biltzen bazen ere, ez ziren ehun pertsonara iritsiko. "Alas-en prestatutako motorra Sacem-era ekarri eta makina osatzen zuten han, horixe egiten zen lana" azaldu du Maritxuk. Alas-en lanean hasi aurretik Amasako muttegiaren ere aritu zen.



Isabel Santamaria, Maria Teresa Lasa, Maria Pilar Iribarren, Dorita Etxenike, Maritxu Gonzalez eta Juanita Etxeberria Alas-era lanera zihoazela, 50eko hamarkadan, bidean ateratako argazkian.

ZUHAITZAK ETA LANDAREAK AMASAKO MUTTEGIAN

Ubeun inguruan zegoen muttegia. "Pinua, haritza, akazia, intxaurra... , zuhaitz eta landare mota asko zegoen. Maiatzean eraiten zen pinu-hazia, artoa eta babarruna bezala,

errenkatan eta errenkatan. Negua txarra zen pinuarentzat, orduantxe aldatu behar izaten baitzen. Jendea pinu bila etortzen zen eta haiantzako pinua ateratzera joan behar



Maria Asun Arrieta, Kandida Garmendia, Juanita Ezeiza, Maria Garmendia, Maritxu Gonzalez, Pauline Urola eta Karmen Oiarzabal muttegiako langileak, Donostiara bazkaltzera joanda, 30eko hamarkadan.



Roberto Garate

"Langileek babarruna ekartzen zuten poltsetan eta ni arduratzen nintzen sukaldean egosteaz"

izaten genuen". Uda nahiz negua izan, goizeko 06:00etatik 14:00etara egiten zuten lan. Eguraldiak ere ez zuen lana baldintzatzen, "izotza baldin bazen ere ez ziguten barkatzen". Atxurra zuten lanabesik nagusia, txabolan gordetzen zituzten lan-tresna guztiak. Terrenoa handia zen, "Amasamendi, Vivero Forestal de Estado jartzen zuen txoko batean, muttegiara igotzeko". Jende gazte asko aritzen zen lanean, baina pixka bat heldutakoan fabrikara joaten ziren gehienak. "Pinu kokorak biltzen eta ematen duen hazia ontzietan jasotzen aritzen zen mutil asko. Kokor haiek sua egiteko oso onak

ziren". Amasarrez gain, Andoaingo San Esteban auzoko herritarrak biltzen ziren, batez ere, muttegian lanerako; neska nahiz mutil. Terrenoak zaintzeko ardura guardak zuen. Baseritarrek zuhaitz asko eskatzen zuten orduan, "kamioiak ere asko etortzen ziren pinu bila". Galdera zuzendu diote Maritxuri: "Bizikletaz joaten al zinen lanera?", "Gero-ra bai" erantzun du. "Aurrena oinez, gero-ago ekarri bainuen bizikleta. Alas-era bai, hara bizikletaz joaten nintzen". "Oinez

bakarrik joateko bide tristea izango zen hura" esan dio Maria Luisak, "eta goizeko 03:30etan amak deskuidatuta bidali ninduen hartan?" ihardetsi dio Maritxuk. Eta azalpena ere eman du: "Pasubaserriaren ondolan entzun nuen Portu fabrikako lauretako tutua. Oiloak ko-ko-ko-ko. Niri beldurra eman bueltan bakarrik etxera itzultzeak eta hantxe egon nintzen atearen ondolan eserita zain". Roberto bai, "Sorabillako mutil bat eta biok bizikletaz joaten ginen muttegitira".

Izan ere, Roberto muttegitiko sukaldaria zen. "Langileek babarruna ekartzen zuten poltsetan eta ni arduratzen nintzen sukaldean egostez. Bigarreneko, arrautzak edo urdaia. Edaria ere beraiek ekartzen zuten. Sukaldean zegoen telefonoaren ardura ere nik nuen. Eskaera gehienak Oñati, Ataun, Bergara edo Eibartik iristen ziren". Maritxu lanean aritu zen garaian ere bertan bazkaltzen zuten, "txabolan ekonomika zegoen eta guk berotzen genuen bazkaria".

PORTU, ZIZURKILGO PAPERTEGIA

Egun Oria moduan ezagutzen den paper-tegiak, Portu izena zuen orduan. Enrique eta Eduardo Portu anaiak eta Leontzio osaba ziren fabrikako nagusiak. Fabrika Zizurkil-en kokatuta egonagatik, inguruko herrietako langile ugari egiten zuen lan bertan. Tartean baita amasar eta villabonatarrek ere. "Villabonakoa balitz bezalaxe. Dena bat zen orduan". Mota ezberdineko papera egiten zuten Portunean, sulfurizatua barne, "grasa ez pasatzeko papera. Bokadilloak eramateko espeziala!". Eta besteak beste, 50eko hamarkada arte, lija papera ere egiten zuten Zizurkil-en. Martin Portun aritu zen hainbat urtean eta langileen erreleboak Salvadorako berberak zirela azaldu du, "gizonak hiru errelebotan egiten zuten lan eta emakumeek goizez eta arratsaldez". Gizonak paper makinetan aritzen ziren lanean. "Papera bobinadoratik ateratzen zenean, kortadorara pasatzen zen, nahi zen neurrian mozteko". Hurrengo pausoa emakumeek papera pasa-



Martin Laskurain

"Guri ez ziguten bazkaririk ordaintzen. Jai ematen ziguten eta kito"

tzea zen, sorta handiak egiteko. "A ze abilezia zuten emakumeek papera pasatzen. Onak baziren, bai horixe!". Estraza papera ere egiten zuten Portunean, "etxeko kontsumorako batez ere. Estraza etxea margotu behar zenean erabiltzen zen asko, lana txukun egiteko". Hemen inguruan banatzeaz gain, kanpora ere bidaltzen zen Portuneko papera. "Salvadorak adina izen bazuen. Salvadoran baino paper klase ugariagoa izango zen gainera, eta egunean, paper gehiago botatzen zen. Hala ere, paper hobea egiten zen Salvadoran; finagoa". Por-

tunean itzain bezala Asintsio Isasti ibiltzen zen, "Subijanean ere ibili zen hura zaldiekin. Aurretik Gartzia". Portu fabrikaren gertatutako istripuren baten berri azaldu digute, "24 urteko gure anaia hantxe hil zen. Gauean zuen lana eta afaltzeko kanpaxoa hartzera zihoala, ola egon probisional. Ola hark huts egin, goitik behera erori eta makina jo zuen buruarekin. Hura gertatu eta segidan konpondu omen zuten" azaldu du Maritxuk. "Beste batean, norbait kandelarekin gasolina hartzera joan eta su hartu zuen fabrikak. Langile bat baino gehiago erre zen eta elbarri geratu zenik ere izan zen". Bi lumanetarekin egin zuten lan Zizurkilgo paper-tegian, "Joxe Ugartemendia enkargatua zen eta ni kortadoran aritzen nintzen" azaldu du Martinek eta, istorioak kontatzen hasten bada, ez dela isilduko gaineratu. "Hainbat langilek lapurretan egiten zuten. Bat baino gehiago bidali zuten etxera". Maria Luisak, "bai Salvadoran ere" zehaztu du. Martinek Portunean saguak izaten zirela aipatu du; etxetik sagutera eramanez, saguak harri-patu eta elkarri txantxak egiten ibiltzen zirela. Gainera, bere laguntzaile oso parrandazalea zela eta behin baino gehiagotan, lane-ra moxkortuta etorri zela, "larunbata zen eta esan nion: 'badakik paper sulfurizaturik ez dagoela: parrandarik egin gabe etorri, nik ez baitat bakarrik martxan jarriko kortadora. Hori esan arren, igual-igual, izugarrizko parranda egin zuen. Ni porterian nengoen zain, 'orain ere zerri hau ez duk etorri esanez' eta han etorri zen bizikletan baxtar-baxtarretik. Makur-makur eginda sartu zen barrura. Jarri genuen makina martxan, baina ez zen zutik egoteko gauza. Kortadorekin moztutako izkinako paperak zulora botatzen zituen eta 12:30ak aldera, 'sar hadi zulora eta egin ezak lo' esan nion. Ordu biak jo zituen eta han geratu zen seko lo. Nik etxera alde egin nuen. Arratsaldeko 16:30etan esnatu omen zen eta atera zene-



Portu lantegiko langileak jai egun batean.

an, porteroari ordu extraordinarioak apuntatzeko eskatu zion". Antzeko gertaerak ohikoak omen ziren, "Salvadoran, gaueko txandean, etxera ateratzeko garaian lo hartu zuen

langile batek. Kalerako esnatu zenean, porteriara etorri eta peritoak, -'hi, orduak sartzen ari al hintzen?', galdetu zion. -'Zenbat apuntatuko dizkiat?', eta langileak:

-'Igualtsu diok, apunta itzak bi". Portun Santa Krutz egunez izaten zuten jai eguna, "guri ez ziguten bazkaririk ordaintzen. Jai ematen ziguten eta kito" amaitu du Martinek.

ARISTEGI INPRENTA ETA ADUNAKO KARTOITEGIA

Pedro Aristegi eta haren emazte Sabina ziren Zizurkilgo inprentako nagusiak. "liburuak, larruzko koadernoak, libretak, era askotako blokak..., gauza asko egiten genuen. Libreta finak eta lodiak; 12, 16, 20, 24, 32, 40, 60 edo 80 orrikoak" azaldu du bertan lan egin zuen Maria Rosario Arinek. "Lana garbia eta txukuna zen, oso entretenitua eta oso polita". Papera Salvadoratik eramaten zuten, "Portunetik ere eramango zuten, noski". Inguruko herrietako jendeaz gain, Tolosatik ere jende asko etortzen zen lanera; "Kanporako ere egiten genuen lan, Espainiarako asko: Valladolid, Valentzia edo

Madriletik eskaria handia zen". Aristegin, Subijanan bezala, maiztaren Gan egiten zuten jai eguna, "baina guk ordaintzen genuen bazkaria, hilerio pixkanaka botatzen genuen diruarekin".

Adunako zubiaren ondoan kartoitegia zegoen, "orain automobilen almazena dagoen horretan. Lantokia ez zen txikia, ez pentsa". Era guztietako kartoia egiten zen. "Kartoi laminak egin eta nahi zen neurrira moztu zituzten gero. Papera bezalaxe, igualigal". Oinarrian, pasta erabiltzen zuten kartoia egiteko ere, "zuk nahi zenuen gramajea ematen zenion paperari. Kartoiari gehia-



Maria Rosario Arin liburuak josteko makinan.

go eman behar". 1930 eta 1931 urteen artean erre egin zen Adunako kartoitegia eta berritu zutenean, torlojutegia jarri zuten leku berean.

LANTOKI TXIKI GEHIAGO

Egungo Irrintzi elkartearen gaineko etxean, Migel Atxagak, arropak, maindireak nahiz bestelako prenda josteko lantokia zuten. "Villabonako etxerik zaharrenetokoa, hamabost bat emakume biltzen zen egunero. Makina bereziak zituzten marrazkiak nahiz bordatuak egiteko". Sacem sortu zen garaian, torlojuak eta azkoinak egiteko beste lantegi bat zabaldu zen Santio kalean "Tornillería Arriarán" zuten izena. Urte

batzuk geroago Otsabi auzora pasa ziren". Duela urte gutxira arte, Villabonan bazen zerrategi bat; "Manuel Sorrondegi zen buru eta villabonatar nahiz asteasuaren artean, dozena bat lagunek egiten zuen lan". 1941 urtean, Agaraitz auzoan enpresa berri bat zabaldu zen, "produktu kimikoekin egiten zuten lan, 'Llopis' zuten izena. "Eraikina Juan Imazek eraiki eta zuzendu zuen". Zizurkilgo zubia igarota, 'Etxeberria & Zal-

dua' izeneko egur zerrategia zegoen eta horren ondoan, zakuak erosi eta saltzeaz arduratzen zen tailerra, "Saquería Quinin' moduan ezagutzen genuen". Harrobiko harria lantzen zuen enpresa bat ere bazen, "harritik eratorritako lanak egiten zituzten. Kare meatzeak zituzten Asteasun eta zakuen salerosketan ere aritzen ziren. Juan Aizpuruarena zen lantokia". Lantoki txiki ugari eta lana ugari nonahi.

LAN BALDINTZEKIN LOTUTAKO GOGOETAK

Oinarritzko ikasketak bukatu orduko lanean hasten ziren garai hartako gazteak, "gazte-gaztetan, hamar urtetik aurrera denak lanera! Gazteagoak ere bai kasu batzuetan. Inoiz inspektorerik-edo agertzen bazen, haiek ikusterako gordearazi egiten zituzten gazteenak". Gaztetoak zertxobait gutxiago, baina egun osoan aritzen ziren lanean. "Egunero zortzi orduz egiten genuen lan. Hasierra batean, larunbatetan ez zen jairik izaten. Gerora, larunbat arratsaldetan jai egiteko, asteen zehar orduak sartzen genituen; eguer-

dian ordu erdi bat eta arratsaldean beste ordu erdi bat". Soldatak ez ziren inor aberasteko modukoak. "Garai hartan ez genuen ezer askorik irabazten, Jornala oso miserablea zen. Denetan antzera izango zen, beno denetan ez; muttegi gehiago irabazten zen orduan" adierazi du Maritxuk. "Aipatu dut Sacem-en ofizioa ikasten hasi ginenean, 2.25 pezeta irabazten genuela egunean. 15.55 pezeta asteen, deskontu eta guzti. Zifra hori ez zait sekula ahaztuko". Soldata horren harira, zera adierazi du Jabierrek; "ez zego-

en kanbiotarako kalderillarik, kobrezko txanponak gerrarako balak egiteko erabiltzen zirela esaten zen. Ondorioz, 55 zentimoak zigitutan ematen zizkiguten. Gogoan dut treneko txartela zigituekin ordaindu izana". Pakok ere gogoan du lehen soldata, "Salvadoran lanean hasi ginenean, 9.50 pezeta jasotzen genuen asteen". "Bai, orduan paper fabriketan gutxi izaten zen" gaineratu du Maritxuk. "Salvadoran Subijanan baino diru gutxiago irabazten zen. Baita Portun ere, paper fabriketan jornalak baxuagoak ziren. Gerra

etagero hasi ziren berdintzen". Antzina-antzinan ez zen jubilariorik izaten, "gerra ondorenean jarri zuten. Bakarren batean" agian zertxobait lehentxeago". Lantegi batzuetan kaxa bat jartzen zuten dirua aurrezteko, "langile bakoitzak soldataren zati txiki bat uzten zuten hilabetero. Jubilarzerakoan, zegokion zatia hartzen zuten kaxatik. Portuko langile-

ek bazuten kaxa, baita udaletxekoek ere". Herriko etxe gehienetan izango zen Subijanan, Salvadoran edo Portun lana egiten zuten kideren bat, baina baita lantegi txikiagoe-tan ere. "Gerra Zibila bukatu zenean hasi zen batik bat Villabona industrializatzen. Alderdi batean zein bestean borrokatu zuten herritarrek lanpostuak behar zituzten bizi-

rauteko eta, horrenbeste hondamendi eka-rriz zuten gerra goibel eta anker hura ahazte-ko", gogoeta egin du Jabierrek. "Egungo lanarekin parekatuta, gogorra zen orduko lana, eskuz egiten baike-n dena. Hala ere, gus-tura joaten ginen lanera, pereza handirik gabe. Dirua nahi izaten zen eta ondorioz, lan egin behar".

Umore onarekin ekinez gero, lan egin beharrak ere ez duela horrenbeste ernegatzen erakutsi digu zazpikoteak. Industriaren sorrera aurrera-pauso handia izan zen Amasan eta Villabonan, eta hizlariak, orduko protagonistetako batzuk. Hurrengo arte!



María Luisa
Zalakain



Pako
Etxenike



Jabier
Berasatuze



Maritxu
Gonzalez



Roberto
Garate



Anjel
Egiño



Martin
Laskurain

...ETA HURRENGOAN ZER:

Etxeko lanei eskainiko diegu tartea martxoko zenbakian. Ez garbigailurik, ez hozkailurik, ez mikrouhinik ezta berogailurik ere, ez zuten inolako erraztasunik. Ahal zuten moduan mol-datzen ziren gure aurrekoak, eta familia handiak aurrera ate-ratzen zituztela kontuan izanda, ez zuten meritu makala.

EGUTEGIA

Inork Lumane egutegirik eskuratu nahiko balu, Villabonako Kazetarian salgai daude oraindik. Gainerakoan, gurekin harremanetan jar daiteke. Behean duzue gure telefono zenbakia.

ESANAK ZEHAZTUZ

Lanbidez hitz egin genuen aurreko zenbakian, Villabonako telefonistetako bat Joakina Berasategi zela genion. Oker izendatu genuen emakume ederra; Juanita zen eta ez Joakina.



Pako Etxenike, arropa txuriarekin, dotere.

ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako
Udala



Manuel Larramendi
Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Truxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta arxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza
KULTURA SAILA